

AITA GABRIEL LERCHUNDI (1908-1995)

Donostia, 1996-01-26

Maiz aipatzen zautaten etxeok aita Gabriel Lerchundi eta, fraidetu naizenean, Beloke-n ezagutua dut berrogoi-ta bateko azaroaren seian. Haren amaren amatxi, Gañaurra Larretxe, ene aitaren amaren ahizpa zaharrena omen zen —eta Olheta-Landaburuko etxeoandrea.

Hogoi-ta hamahirutik hemeretziraino, bazituen ordukotz aita Lerchundi-k Jerusalem-n sei urte iraganak, hango Siria-tar apezgaien erakasle. Bazituen berak hogoi-ta hameka urte; eta, bera musikaria baitzen, lan handi bat egina zuen Lur-Sainduan, Siria-tarrek gogoz bakarrik zazkiten kantu aspaldikoen biltzen eta bere eskuz idazten.

Handik itzuli eta, lan bertsua hasi zuen ipar Euskal-Herrirako. Kantu zahar ainitzek balio eta erakaspas gutiko hitzak zauzkatelakotz, galdegin zautan hitz berriak asmatzea. Berrogoi-ta zazpian bururatua zuen KANTIKAK liburua, bere lau ehun bat kantu-soinu eta hitzekin. Bortz urterako joan zaiku berriz, orduan, Lur-Saindurat.

Udazkenean urrongo leihorretarat doatzin hegaztinak aipatuz, Jerusalem-rat pertsu batzu igorri niozkan, doñu berri zerbeit asma zezoten; berrogoi-ta hamekan banuen haren erantzuna, euskara garbian:

“Ez aipa, otoi, hor gaindi badoatzin azken uso-lertxunak: halako bat egiten baitoizu itsasoz haraindian dagon zure adixkideari... Hortarik ezagut zein gogotik lotu naizen galdatu dautazun lanari. Nere asma-ahalak ba ote du oraino euskal-jiterik? Neroni iduritzen baitzaut, Euskal-Herritik urrun egonez-ta-egonez, arrotzen ari zautala. Bertzalde hain bertzelako musikez bainaiz hemen goiz-arrats leher-asetua! Maometanoen dorre goren gainetik otoitz-oihularien kantu-balentriak (heien hatsa!)... Inguruetako etxe eta ostatuetaarik radioen nardagarritzko karrankak, ari direla arabez, turkoz, grekaz, armenianoz, iranianez... Karriketik saltzaileen oihu-kantu bitxiak... Seminarioan berean gure haurren kantu Sirianoak... Nola erdoil hortaz osoki garbi egon?”

Huna beraz, airez aire, nere kantu berriak. Ez balinbadute laketzekorik, utz elgarretaratu arte, edo aita Donostia maitiari erakutsi, euskalago nolda ala pozetan ezar ditzan.”

Berrogoi-ta hamabian *Beloke*-rat itzulia zen. Ordukoak dire: HERRI-MINA kantu hunkigarriak, MORTUTIK OIHU Joanes Mortuarraren antzerkia, MEZA SAINDUKO KANTIKAK eta PASIONEA mendiz bi aldetako elizetan handizki emana izan dena.

Hamaseian bazoan berriz, bertze hiru aitekin, Caracas-eko Beneditanoen laguntzarat; bi urteen buruan, haatik, gure artean finkatua zen, alde-bat. Euskal-liturgia sortzerakoan, hemen ginuen beraz. Hirurogoi-ta bian, kantutan egin eta zabaldu zituen *IGAN-*

DETAKO BEZPERAK, gero *SALMOAK* beren doñu ta bortz ehun lelo bereziekin, bai eta euskal-elizek behar arauko kantu ala idazki asko.

Kantu guzien musika bere eskuz idazten zuen eta hain ongi idazten, nun ez barginuen fotoz argitaratzeaz bertze lanik. Hirurogoi-ta hamarrean, lan gehiegiz dudarik gabe, begi bat itsutu zitzaion; ez zen halere, arrunt xahartu arte, idaztetik gelditu.

Joanden abendoaren 29-an, Euskaltzaindiko biltzarrerat abian nintzelarik, joan zai-ku zeru alde. Larogoi ta zazpi urte zituen Ziburu-n sorturik; aita Orio-koa zuen eta ama, Mari Elizalde, ziburutarra. Bat zuen, beraz, bere baitan mendiz bi aldetako itsas-gizonen odola. Bere anai gazteago batekin eta geroko aita *Martin Sein*-ekin fraidetu nahiz joan zenean, Lazkao-n ziren Beloke-ko aitak. Sortzez Lapurdi-koa zen beraz; legez, aita bezala, Gipuzkoarra; izaitez eta bihotzez Euskalduna, mundu-zabaleko euskal-seme guzien anaia. Hori, argi ta garbi, ageri da berrogoi-ta bien *Aintzina*-n idatzi zuenetik:

“... Bertze guziek bezala, Euskalduna sortzen da kantari, baina kantatzeko badu bere molde berezia. Hemen ere erran dezakegu: Guri gurea, arrotzari berea, horra xun-bidea!

Otoi, mintzaira arrotzari doakion airea, utz Euskal-Herriitik urrun! Euskaldun hitzak euskaldun airea behar du...

... Zaude Euskaldun zure aireetan ere!...”

Ainitz buru-hauste, ainitz gerorako kezka bada euskal-bihotzetan; baina, aita Lerchundi-k dion bezala, euskaraz eta euskaldunki kantatzen duguno, bat gaudezke bai eta beldur gabe.

X. Iratzeder

* * *

Sirita-tar Elizarentzat idatzi zituen kantu-lanez bertzalde, baditu aita Gabriel Lerchundi-k ainitz eginik, gure Euskal-Herriarentzat ere. Hogoi-ta hamabi soinu-idazki luze edo laburrago horien zerrenda Euskaltzaindia-ri ene hitzaldiarekin utziko diot. Badut aski erranik; lagun gaitzatela aita Lerchundi-k eta zeruko euskal-soinulari guziek, beti eta denen gatik ere, kantari egoiten.

Aita Gabriel LERCHUNDI-ren idazkiak

1942-an:

— Ekaineko *AINTZINA*-n:
“Le chant populaire basque.
Les notes d’agrément.” (p. 2-5)

— Azarokoan:
ESKUALDUN KANTARIA, ZINEZ “ESKUALDUN” ote zare? (p. 50-55)

1948-an:

KANTIKAK

hiruzpalau ehun eliza-kantu, beren soinuekin. (629 p.)

1952-an:

HERRI-MINA

hamasei kantu berri. (50 p.)

1953-an:

— *MORTUTIK OIHU*

Joanes Mortuarraz antzerkia:
hamabi kantu, lau ager-aldi. (62 p.)

— *MEZA SAINDUKO KANTIKAK* (19 p.)

zortzi kantu berri

— *IDUZKI SAINDU* (27 p.)

hamalau "O Salutaris" ezagutuak, hiru berri.

1954-an:

— *PASIONEA* kantatua (122 p.)

hiru edo lau bozetako zortzi kantuekin.

— *LES ACCORDS* (62 p.)

organo joileentzat.

— *KANTIKAK (SOINUZ LAGUNDUAK)* (61 p.)

54 kantikentzat.

1955-en:

KANTU BATZU (30 p.)

gaztetzat, bozetan emanak:
hamahiru antzerki-kantu eta zortzi otoitz-kantu.

1962-an:

IGANDETAKO BEZPERAK (52 p.)

1963-an:

SALMOAK (854 p.)

1964-an:

IRAKURGAIK NOLA KANTA (42 p.)

ebanjelio eta epistola kantuak.

1965-an:

LEHEN ALDAREKO LIBURUAN (768 p.)

— Meza sainduko otoitz eta kantuak

— Prefazioak

— Gure Aita; Begira, Jauna

— Bazko-Deia

1967-an:

FEDEDUNEN OTOITZA (12 p.)

— Xedeak nola kanta

— Otoitz-deiak

1968-an:

SALMOAK (esku-liburua)

150 samo eta 500 bat lelo. (508 p.)

1970-an:

Urtarrileko *Gure Herria* hilabetekarian,

“LA LITURGIE BASQUE ENVISAGÉE EN 1947”. (p. 1-24)

1971-ean:

XORIA KANTARI (27 p.)

Minaberri anderearen hitzak,

G. Lerchundi-ren aireak.

1974-an:

PASIONEA (berritua) (39 p.)

hiru edo lau bozetako sei otoitz-kantuekin.

1981-ean:

Otoitz-bilkura bat (*Otoizlari-99*)

hamalau kantu. (p. 37-47)

BETELKO ALDAREA

hamalau kantu (p. 13-33)

1982-an:

“LE TRAITEMENT RYTHMIQUE DES MOTS DANS LE CHANT EN NAVARRO-LABOURDIN NON ACCENTUÉ d’AUJOURD’HUI” (55 p.)

1984-an:

AMEN BESTA

haurfioentzat (11 p.)

BERRI ONA

ehun ebanjelio-kantu (106 p.)

1985-ean:

KANTIKAK-II

hirurogoi-ta hamar kantu berri.

1987-an:

Gelditu den *OTOIZLARI* agerkarian (n.º 13-124)
larogoi-ta zortzi eliza-kantu.

1992-an:

EZKILA kantuak

I: 108 kantika (batzu lenengoetarik)

II: 119 " " "

III: 142 " " "

IV: 137 " " "

V: 60 lau bozetako kantu handi

— GAINERATEKO IDAZ-LAN BATZU:

1952-an:

“Jerusaleme-tik igorri”

otsailaren 12-ko eskutitza.

1965-an:

Kantiketarik Salmoetarat

Gure Herria (p. 333-352).

1983-an:

Tons psalmiques

Bases techniques d'un projet de pslamodie basque

1993-an:

“Kantu zahar ala berri, Herriaren altxagarri”

Txistulari-156 (p. 13-15)

Aita Lerchundi-ren euskal-liturgi lanaz, Iratzeder mintzo.

— AIPAMEN ETA GORESMENAK:

1994-an:

“Aspaldiko zorra”

Urriaren 29-an Iratzeder-rek,

Baiona-ko Eusko-ikaskuntzaren biltzarrean.

1996-an:

Herria-an, utarrilaren 4-an,

Iratzederrek egin lerroak.

1996-an:

Egunkaria-n, urtarrilaren 5-ean,

Lutxi Fourcade Iratzeder-rekin hizketan.

1996-an:

“Euskaltzaindian”, urtarrilaren 26-an,

Iratzeder-ren Donostia-ko hitzaldia.